





# FAMILIA ETA OINORDETZA ZUZENBIDEA

ANDRÉS M. URRUTIA BADIOLA

ELIXABETE PIÑOL OLAETA



**AVD·ZEA**

Academia  
Vasca de  
Derecho

Zuzenbidearen  
Euskal  
Akademia

*Dykinson, S.L.*



**ANDRÉS M. URRUTIA BADIOLA**

Notarioa

**ELIXABETE PIÑOL OLAETA**

Deustuko Zuzenbide Fakultatea. Irakaslea

Abokatua

**FAMILIA ETA  
OINORDETZA  
ZUZENBIDEA**

BILBO, 2023

Argitalpen hau, zatiz edo osorik, ezin kopia daiteke, sistema informatiko batera ezin sar daiteke, ez eta bildu edo igorri inola ere, dela elektrikatik, dela mekanikatik, dela fotokopiatik, dela grabazio magnetikotik, dela bestelako informazio biltze eta berreskuratze sistemaz, baldin eta lehendaurrez egileen eta argitaratzailearen baimenik ez badu. Aipatutako eskubideak hautsiz gero, jabetza intelektualaren aurkako delitua (Zigor Kodearen 270. artikulua eta hurrengoak) gauzatu daiekete.

Idazlan honen zati bat eskaneatu edo fotokopiatu behar baduzu, jo ezazu Cedrora (Centro Español de Derechos Reprográficos). Cedrorekin harremanetan jar zaitezke hurrengo webgunearen bidez ([www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com)) edo telefonoaren bidez (917021970/932720407).

#### 4. argitaraldia. Itxiera-data: 2023. urteko urtarrilaren 31a

© Copyright by

Andrés M. Urrutia Badiola / Elixabete Piñol Olaeta  
ZUZENBIDEAREN EUSKAL AKADEMIA  
ACADEMIA VASCA DE DERECHO  
Bilbo, 2023

Editorial DYKINSON, S.L.

Meléndez Valdés, 61. 28015 Madrid

Telefonoa (+34) 91 544 28 46 • (+34) 91 544 28 69

e-mail: [info@dykinson.com](mailto:info@dykinson.com)

<http://www.dykinson.es>

<http://www.dykinson.com>

Argitalpen-batzordea, ikusi [www.dykinson.com/quienessomos](http://www.dykinson.com/quienessomos)

ISBN: 978-84-1170-022-1

Lege-gordailua: BI 00272-2023

## AURKIBIDEA

Laburdurak .....	17
Atarikoa: <i>Andrés M. Urrutia Badiola / Elixabete Piñol Olaeta</i> .....	19

### LEHENENGO ZATIA FAMILIA ZUZENBIDEA

#### 1. GAIA: FAMILIA ETA FAMILIA ZUZENBIDEA. FAMILIA EREDUEN OSAKETA BERRIA: HORIEN ERAKETA ETA GIZARTEA

1. Familia .....	25
1.1. Familiaren kontzeptua .....	25
1.2. Senidetasuna / ahaidetasuna .....	27
1.3. Familia eta konstituzioa .....	28
1.4. Familia taldearen autonomia.....	29
2. Familia zuzenbidea .....	30
2.1. Kontzeptua .....	30
2.2. Familia taldea eratzeko moduak.....	30
2.3. Egitatezko familiak .....	31

#### 2. GAIA: SENIDETASUNA. MANTENUAREN BETEBEHARRA SENIDEEN ARTEAN

1. Kontzeptua .....	35
2. Baldintzak .....	35
3. Oinarria .....	36
4. Mantenu zorra: kontzeptua eta ezaugarriak .....	37
4.1. Kontzeptua .....	37
4.2. Ezaugarriak.....	38

4.3.	Mantenua emateko betebeharra duten pertsonak .....	39
4.4.	Mantenu-hartzailea.....	41
4.5.	Edukia .....	42
4.6.	Zenbatekoa.....	43
4.7.	Sorrera- eta betepenerak .....	44
4.8.	Azkentzea .....	44
5.	Beharrizan egoerak erakartzen ez duen mantenua .....	45

### **3. GAIA: EZKONTZA ETA ELKARBIZITZARAKO ANTZEKO EGOERAK**

1.	Ezkontza .....	47
1.1.	Kontzeptua eta bilakaera historikoa.....	47
1.2.	Ezkontza Espainiako Konstituzioan .....	48
1.3.	Ezkontza Kode Zibilean .....	49
1.4.	Ezkontza-sistema Espainian: erlijiosoa/zibila .....	50
1.5.	Ezkontitza.....	50
2.	Ezkontzaren betekizunak .....	51
2.1.	Ezkontzeko eskubidea.....	51
2.2.	Ezkontideen gaitasuna: debekuak, eragozpenak eta horiek saihestea .....	52
2.3.	Ezkontideen adostasuna.....	57
2.4.	Ezkontzaren forma .....	61
2.5.	Isilpeko ezkontza .....	65
2.6.	Heriotza arriskuan egindako ezkontza .....	66
2.7.	Ahalorde bidezko ezkontza .....	67
3.	Ezkontideen arteko harreman pertsonalak .....	68
3.1.	Ezkontideen arteko berdintasun-printzipioa .....	68
3.2.	Ezkontideen eskubideak eta betebeharrak .....	69
3.3.	Ezkontegoitza .....	71
4.	Elkarbizitzarako egoerak: izatezko bikoteak Euskal Autonomia Erkidegoan.....	72



#### 4. GAIA: EZKONTZAREN DEUSEZTASUNA, BANANTZEA ETA DESEGITEA: HITZARMEN ARAUEMAILEA

1. Ezkontzaren deuseztasuna .....	75
1.1. Kontzeptua eta arrazoiak .....	75
1.1.1. <i>Kontzeptua</i> .....	75
1.1.2. <i>Deuseztasun arrazoiak</i> .....	75
1.2. Deuseztasunaren akzioa egikaritzeko legitimazioa .....	77
1.3. Ezkontza deuseza balioztatzea .....	77
1.4. Deuseztasunaren adierazpenaren ondoreak eta ustezko ezkontza.....	78
1.5. Ezkontza rato eta burutugabeari buruzko ebazpen kanonikoa eta deuseztasuna .....	80
2. Ezkontzaren banantzea .....	82
2.1. Kontzeptua eta motak .....	82
2.2. Ondorioak .....	84
2.3. Berradiskidetzea .....	84
3. Ezkontza desegitea .....	85
3.1. Kasuak: heriotza/heriotzaren adierazpena/dibortzioa .....	85
3.2. Dibortzio-akzioa .....	86
3.3. Dibortzioa eta berradiskidetzea .....	87
3.4. Dibortzioaren epaia .....	88
4. Deuseztasunak, banantzeak eta dibortzioak sortzen dituzten ondorio berberak .....	89
4.1. Behin-behineko neurriak .....	89
4.1.1. <i>Lege-neurriak</i> .....	90
4.1.2. <i>Epaiaren bidezko neurriak</i> .....	90
4.1.3. <i>Neurri hauek azkentzea</i> .....	92
4.2. Hitzarmen arauemailea .....	93
4.3. Behin betiko neurriak: Epaiaren ondorioak .....	95
4.4. Deuseztasuna, banantze eta dibortzioari aplikatu beharreko legea .....	102
5. Euskal Autonomia Erkidegoa: 7/2015 Legea, ekainaren 30ekoa, gurasoen banantze edo haustura kasuetako familia harremani buruzkoa .....	102

**5. GAIA: SEME-ALABATASUNA: KONTZEPTUA, MOTAK ETA AKZIOAK**

1. Kontzeptua: estatusa/egoera zibila .....	105
2. Araubidea: Konstituzio-printzipioak. Kode Zibila eta Erregistro Zibilaren legeria.....	106
2.1. Berdintasun-printzipioa .....	106
2.2. Aitatasuna ikertzeko printzipioa .....	107
2.3. Beste printzipioak .....	108
2.3.1. <i>Pertsonaren duintasuna eta beraren nortasunaren garapen askea</i> .....	108
2.3.2. <i>Pertsonen osotasun (fisiko eta) moralari buruzko printzipioa</i> .....	108
2.3.3. <i>Seme-alaben oso-osoko babesari buruzko printzipioa</i> .....	109
3. Ondorioak .....	110
3.1. Abizenak .....	110
3.2. Mantenua .....	110
3.3. Oinordetza .....	110
3.4. Harreman pertsonalak .....	110
4. Motak .....	111
4.1. Biologikoa .....	111
4.1.1. <i>Ezkontzazkoa</i> .....	111
4.1.2. <i>Ezkontzaz kanpokoa</i> .....	115
4.2. Adopziozkoa .....	121
5. Ondorioak .....	121
6. Seme-alabatasuna egiaztatzea .....	122
6.1. Orokorrean .....	122
6.2. Egoera edukitza: <i>nomen, tractatus, fama</i> .....	122
6.3. Ezkontzazko seme-alabatasuna zehaztea .....	123
6.4. Ezkontzaz kanpoko seme-alabatasuna zehaztea .....	123
7. Seme-alabatasunaren erreklamazioa .....	124
8. Seme-alabatasuna aurkaratzea .....	125
9. Seme-alabatasuna eta lagundutako ugalketa-teknikak: maiatzaren 26ko 14/2006 Legea, lagundutako ugalketa-teknikei buruzkoa .....	127

## 6. GAIA: GURASO-AHALA ETA ZAINZA ETA BABESERAKO BESTELAKO ERAKUNDEAK: ADOPZIOA ETA HARRERA

1. Guraso-ahala .....	131
1.1. Izaera juridikoa eta edukia .....	131
1.2. Ezaugarriak .....	132
1.3. Titulartasuna eta egikaritzea .....	134
1.4. Seme-alaben lege ordezkariak .....	138
1.5. Defendatzaile judiziala: interes kontrajarriak .....	141
1.6. Adingabearen izateko zaintza .....	143
1.7. Seme-alaben ondasunak eta ondasun horien administrazioa .....	143
1.8. Guraso-ahala azkentzea .....	146
2. Adopzioa .....	147
2.1. Kontzeptua .....	147
2.2. Ezaugarriak .....	147
2.3. Prozedura eta subjektuak .....	149
2.4. Adopziogaiaren zaintza .....	153
2.5. Ondorioak .....	154
2.6. Azkentzea .....	156
2.7. Nazioarteko adopzioa .....	157
3. Adingabeen tutoretza .....	157
3.1. Xedapen orokorrak .....	157
3.2. Tutoretza .....	158
3.3. Adingabeen defendatzaile judiziala .....	169
4. Adingabeen gaineko zaintza eta harrera .....	169
4.1. Erakunde berrien oinarritzko printzipioak eta esangura .....	169
4.2. Araubidea .....	170
4.2.1. <i>Ex lege tutoretza</i> .....	170
4.2.2. <i>Aldi baterako zaintza</i> .....	171
4.2.3. <i>Zaintza egikaritzeko moduak</i> .....	172
4.2.4. <i>Babesgabezia-egoeraren adierazpen                 administratiboa ezabatzea</i> .....	173
4.2.5. <i>Familia-harrera</i> .....	175
4.2.6. <i>Euskal Herriko Autonomia Erkidegoa</i> .....	176

**BIGARREN ZATIA**  
**OINORDETZA ZUZENBIDEA**

**7. GAIA: MORTIS CAUSA OINORDETZA. OINORDEZAREN ABIABURUAK. OINORDEZAREN GEHIAGOTZEA. ORDEZKAPEN ESKUBIDEA ETA ESKUALDATZE ESKUBIDEA. JARAUNTSIA ONARTZEA; ARBUIATZEA ETA HORREN ONDORIOAK.**

1.	<i>Mortis causa</i> oinordetza .....	179
1.1.	Kontzeptua eta motak: titulu unibertsala (jaraunslea) / titulu parti- kularra (legatu-hartzailea). Euren arteko desberdintasunak .....	180
1.2.	<i>Ex re certa</i> instituzioa eta zati alikuotaren legatua .....	183
1.3.	Oinordekoa izateko gaitasuna. <i>Concepturus</i> eta <i>nasciturus</i> direlakoak .....	184
1.4.	Oinordeko izateko debekuak eta duintasunik eza .....	185
	1.4.1. <i>Erabateko ezgaitasunak</i> .....	185
	1.4.2. <i>Oinordeko izateko ezduintasuna</i> .....	186
	1.4.3. <i>Ezgaitasun erlatiboak</i> .....	188
	1.4.4. <i>Jaraunsgabetzea</i> .....	190
2.	Oinordetzaren abiaburuak: bokazioa eta delazioa .....	190
3.	Oinordetzaren gehiagotzea .....	192
3.1.	Kontzeptua eta kasuak .....	192
3.2.	Ondorioak .....	194
4.	Ordezkapen eskubidea .....	194
4.1.	Kontzeptua eta kasuak .....	194
4.2.	Ondorioak .....	196
5.	Eskualdatze eskubidea .....	197
6.	Jarauntsiaren eskuraketa eta jarauntsi banatugabea .....	198
7.	Jarauntsia onartzea .....	201
7.1.	Izaera eta ezaugarriak .....	201
7.2.	Osagaiak .....	202
7.3.	Onartzeko aldia .....	203

7.4.	Onarpen formak .....	204
7.5.	Onarpen motak.....	205
	7.5.1. <i>Onarpen huts eta soila</i> .....	205
	7.5.2. <i>Inbentarioaren arabera onartzea</i> .....	205
7.6.	Onarpenaren ondorioak .....	207
8.	Jarauntsia arbuiatzea .....	208
8.1.	Izaera eta ondorioak .....	208
8.2.	Ondorioak, batez ere, hartzekodunen kasuan .....	208

**8. GAIA: TESTAMENTUGILEAREN BORONDATEARENTZAKO MUGAK:  
SENIPARTEA ETA JARAUNTSIKO ERRESERBAK. JARAUNSGA-  
BETZEA ETA OINORDETZA ESKURATZEKO EZDUINTASUNA**

1.	Senipartea .....	211
1.1.	Kontzeptua eta izaera juridikoa .....	211
1.2.	Senipartedunak .....	213
1.3.	Alargunaren senipartea .....	215
1.4.	Senipartearen zenbaketa eta egozketa .....	217
1.5.	Senipartearen ukiezintasuna (kopurua eta izaera) .....	222
1.6.	Senipartea dirutan ordaintzea: kasu bereziak .....	226
1.7.	Hobekuntzaren herena.....	229
2.	Jarauntsiko erreserbak.....	234
2.1.	Lerro-erreserba.....	234
2.2.	Alargun-erreserba .....	237
2.3.	Itzultze edo lehengoratzeko eskubidea .....	242
3.	Preterizioa .....	244
3.1.	Kontzeptua eta baldintzak .....	244
3.2.	Motak .....	246
3.3.	Ondoreak .....	246
4.	Jaraunsgabetzea.....	247
4.1.	Kontzeptua eta esangurak.....	247
4.2.	Betekizunak .....	248
4.3.	Arrazoiak .....	249

4.4.	Froga .....	250
4.5.	Jarunsgabetzearen ondoreak .....	250
4.6.	Berradiskidetzea .....	251
5.	Oinordetza eskuratzeko ezduintasuna .....	251
6.	Eranskina .....	253

**9. GAIA: JARAUNSLAAREN IZENDAPENA. JARAUNTSIKO ORDEZPENAK  
ETA LEGATUAK. JARAUNSLAAREN IZENDATZEA  
BALDINTZAPEAN ETA MODUPEAN**

1.	Jaraunslak izendatzeko moduak orokorrean.....	255
2.	Jarauntsiko ordezpenak .....	258
2.1.	Kontzeptua eta motak .....	258
2.2.	Ordezpen arrunta .....	259
2.3.	Zurtz-ordezpena .....	260
2.4.	Fideikomisozko ordezpena .....	262
2.5.	Hondakinaren gaineko fideikomisoa .....	268
3.	Legatuak .....	269
3.1.	Orokorrean .....	269
3.2.	Kasu bereziak .....	278
4.	Jaraunslak izendatzea .....	284
4.1.	Baldintzapean .....	284
4.2.	Epemugapean .....	290
4.3.	Kausa/modu baten pean .....	291

**10. GAIA: TESTAMENTUA: KONTZEPTUA, MOTAK  
ETA HORREN ERAGINGABETASUNA**

1.	Testamentua .....	295
1.1.	Kontzeptua eta izaera .....	295
1.2.	Ezaugarriak.....	296
1.3.	Testamentua egiteko gaitasuna .....	298

1.4.	Testamentugilearen borondatea eta horren akatsak .....	300
1.5.	Testamentuaren interpretazioa .....	301
1.6.	Testamentuaren solemnitateak .....	303
2.	Testamentu motak .....	307
2.1.	Orokorrean .....	307
2.2.	Testamentu irekia.....	308
2.3.	Testamentu olografoa .....	310
	2.3.1. <i>Kontzeptua</i> .....	310
	2.3.2. <i>Osagai subjektiboak</i> .....	311
	2.3.3. <i>Forma osagaiak edo solemnitateak</i> .....	311
	2.3.4. <i>Egilespenaren ondorengo izapideak</i> .....	313
2.4.	Testamentu itxia .....	314
	2.4.1. <i>Kontzeptua</i> .....	314
	2.4.2. <i>Osagai subjektiboak</i> .....	315
	2.4.3. <i>Forma osagaiak edo solemnitateak</i> .....	317
2.5.	Salbuespeneko testamentuak zuzenbide erkidean .....	320
	2.5.1. <i>Hur-hurreko heriotza arriskuan egindako testamentua</i> ...	320
	2.5.2. <i>Izurritean egindako testamentua</i> .....	320
	2.5.3. <i>Bi testamentuoi buruzko arau erkideak</i> .....	320
2.6.	Testamentu bereziak .....	321
	2.6.1. <i>Testamentu militarra</i> .....	321
	2.6.2. <i>Itsasoko testamentua</i> .....	321
	2.6.3. <i>Testamentugile atzerritarra</i> .....	322
	2.6.4. <i>Espainiarrak atzerrian egindako testamentuak</i> .....	323
2.7.	Azken nahien erregistro orokorra .....	324
3.	Testamentuaren exekuzioa: albazea .....	326
3.1.	Kontzeptua .....	326
3.2.	Ezaugarriak.....	326
3.3.	Albazeatzaren eraketa .....	327
3.4.	Eginkizunak eta ahalmenak .....	328
3.5.	Epea eta azkentzea .....	331
4.	Testamentuaren eragingabetasuna .....	332
4.1.	Deuseztasuna .....	332
4.2.	Bihurketa .....	334
4.3.	Testamentua aurkaratzeko debekua .....	335

4.4.	Iraungitzea .....	335
4.5.	Ezeztatzea .....	335

**11. GAIA: JARAUNTSIKO ERKIDEGOA. JARAUNTSIAREN BANAKETA ETA KOLAZIOA**

1.	Jarauntsiko erkidegoa .....	341
2.	Jarauntsiaren banaketa .....	342
2.1.	Kontzeptua eta izaera juridikoa .....	342
2.2.	Nork eska dezake/eskatzeko akzioa .....	344
2.3.	Banaketaren moduak .....	345
	2.3.1. Testamentugilea.....	345
	2.3.2. Komisarioa/kontulari-banatzaila .....	349
	2.3.3. Jaraunsekideak.....	358
2.4.	Eragiketak .....	361
2.5.	Kolazioa.....	365
	2.5.1. Kontzeptua, oinarria eta baldintzak .....	365
	2.5.2. Kolazioaren salbuespenak eta lekapena .....	368
	2.5.3. Kolazioa burutzea eta horren ondoreak .....	369
	2.5.4. Kolazioaren adibidea .....	371
2.6.	Banaketaren ondorioak .....	371
2.7.	Banaketaren eragingabetasuna .....	372
3.	Testamenturik gabeko oinordetza .....	377
3.1.	Orokorrean .....	377
3.2.	Seme-alabak eta ondorengoak oinordeko izatea.....	382
3.3.	Aurrekoak oinordeko izatea .....	383
3.4.	Alarguna oinordeko izatea .....	384
3.5.	Albokideak oinordeko izatea .....	384
3.6.	Estatua oinordeko izatea.....	384
3.7.	Etxe-animaliak .....	385
4.	Kontratu bidezko oinordetza.....	386

**12. GAIA: LEGE TESTUAK ETA ESKULIBURUAK .....** 389



## LABURDURAK

AG	Auzitegi Gorena
art.	artikulua
BJL	Borondatezko Jurisdikzioaren Legea
EAO	Estatuko Aldizkari Ofiziala
EHAA	Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria
EK	Espainiako Konstituzioa
ENZN	Erregistro eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusia
EZE	Erregistro Zibilari buruzko Erregelamendua
EZL	Erregistro Zibilari buruzko Legea
HE	Hipoteka Erregelamendua
HL	Hipoteka Legea
KA	Konstituzio Auzitegia
KAE	Konstituzio Auzitegiaren Epaia
KZ	Kode Zibila
NE	Notario Erregelamendua
OJ	Oinarri juridikoa
PZL	Prozedura zibilaren legea
SJFPZN	Segurtasun Juridikoa eta Fede Publikoaren Zuzendaritza Nagusia
ZK	Zigor Kodea
zk.	zenbakia



## ATARIKOA

Argitalpen honen erabiltzaileak erraz antzemango duenez, lehen-lehenetsitako helburua dute orrialde hauek, hain zuzen ere, Zuzenbide ikasketak egiten ari den ikasle hori. Izatez, horrentzat izan nahi dute hauek lanabes lagungarri eta tresna eskuragarri.

Aspaldikoa da unibertsitateko irakaskuntzan ari garenontzat, euskara bera bertaratzeko gogoia, berori gure mintzamolde eta idazmoldea izan dadin. Zuzenbidearen sailetan, are nabarmenago, legelariak, mintzamenaz ez ezik, lumaz ere ontzen baitu bere jarduna. Hainbatez, jardun horretarako ereduak unibertsitateko fakultatean barneratzen ditu ikasleak eta begi-bistakoa denez, garai bateko hizkuntza bakar batetik oraingo hizkuntza aniztasunera igaro dira unibertsitateak eta hor dago, bere leku eta zereginen aldarri, euskara bera ere.

Orain dela hiru hamarkada ekin zioten Deustuko Unibertsitatearen Zuzenbide Fakultateak eta Euskal Gaien Institutuak lan horri eta aitzindaritza horren bitartez ere, fruitu emankor eta adierazgarriak ekarri dituzte euskararen arlora, zuzenbidearen sail desberdinetan. Hartara, duela hogeitau urte argitaraturiko lehen euskarazko eskuliburuek segida luzea izan dute eta erreskadan etorri dira, bata bestearen atzetik, osterantzeko esku erakutsiak, eskuliburuez at ere: lege testuak, hiztegiak... eta sarearen bidez moldaturiko errealitateak.

Euskal Herriko unibertsitate eta fakultate batentzat katebegi ederra da horixe, gerora ekarri duena hasierako ikasle euskaldunak oraingo irakasle euskaldunak izatea, katea ez dela eten zalantzarik gabe frogatzeko.

Egia esan, oro zen eginkizun aldi hartan eta premia larriei erantzun nahian, oinarrikoenetik abiatu eta sail esanguratsua osatu zen, legelari nahiz euskalari talde baten bidez, hizkuntzaren kalitatea bermatu nahian. Helmuga zen zuzenbidean ere erabili beharreko hizkuntza duina eta egokia izatea, zuzena izateaz aparte. Terminologia juridikoa, esamolde juridikoak, euskaraz emandako legearen inguruko kontzeptualizazioa... hortxe zeuden, ageri-agerian eta jorratzailearen esperoan.

Ezbairik gabe esan daiteke ekimen horrek berebiziko ondorioak ekarri zituela, irakasleen formazioan, testugintzan eta lege jarduneko giroan, ezin argiago bultzatu baitzituen hark gerora sortu diren bestelako ekimenak, administrazioan, auzitegietan eta irakaskuntzan, euskararentzat onura nabarmenak erakarri eta sendotu dituztenak.

Denboraren joan-etorriek, alabaina, argiro erakutsi dute horixe zela bidea, hasieran bide malkartsua izan arren. Artean ikasketa planak erro-errotik aldatu dira, Europako goi mailako irakaskuntzaren esparrua ere zabaldu eta hedatu egin da eta Europako zuzenbidea gero eta etxeoagoa da gure baitan. Bestetik ere, gizartea bera aldatu da eta egun dituen kezkak eta beharrak azkar eta arin doaz beste eite batez itxuratzen.

Zer esanik ez, horrek guztiak ahalbidetu du, ildo beretik ere, irakasleen eta ikasleen arteko harremanak beste modu batez ikustea. Hurrean ere, teknologia berriak izan dira, hein handi batean, horretarako erraztasunak eman dituztenak.

Horiek horrela, euskarak bere bide propio egiten hasi da gizartean eta lege munduan, dela unibertsitatean, dela jardun praktikoan. Herri agintaritzaren aldetik ere, ahalegin begi-bistakoak egin dira norabide horretan.

Bidegintza horretan laguntzera dator, etorri ere, argitalpen hau. Egileen eskarmentua barneratzen du, Familia eta Oinordetza zuzenbideari dagokionez, Deustuko Unibertsitatean eta eguneroko jardun juridikoan. Neurri berean ere, ez ditu baztertzen bere aurrekariak, itzulpenaren laguntzaz behinola ondu zirenak. Horietan oinarri hartu eta, harago doa, edozein modutan ere, eta haiek aintzat hartuz, egokitu egiten ditu artean izan diren aldarazpenak, dela lege aldaketak bilduz, dela doktrina eta jurisprudenziaren berrikuntzak bere eginez.

Beharrik, egun badago horretarako laguntza berezia, sareko edukiaren bidez eta horretara ere badoa, aldamenekoa eta hur-hurrekoa baitu berrikitan sareko baliabideetan ageriko dena: [www.iusplaza.com](http://www.iusplaza.com). Joan bedi bertara irakurlea eta han kausituko ditu, luze-zabal, hemen ments izan ditzakeenak.

Zuzenbide zibileko arloan dago kokatuta argitalpen hau eta ezin utzizkoa da, halako atariko batean, zuzenbide zibileko familia eta oinordetzak jokoan daudela, bi sail horietan azken boladan izan diren aldaketa azpimarragarriak aipatzea. Horiei ere heldu zaie, Espainiako Kode Zibilaren esparrua aurrean dela aztergai.

Aldaketak horiek etorri dira, besteak beste, eta testuari dagokionez, jada Estatu-ko Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren euskarazko gehigarrietatik. Horrexegatik ahaleginak egin dira testu horiek aintzat hartu eta liburu honen lerroetan txertatzeko.

Ezin isildu, bestalde ere, argitalpen honen edukian, zeharka bakarrik aipatzen bada ere, 2015. urtetik aurrera Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen euskal zuzenbide zibila eta beren-beregi horren familia eta oinordetza sailak. Gera bedi hemen egileon konpromisoa, luze baino lehenago, horri buruzko euskarazko testua ontzeko eta gizarteratzeko.

Hasieratik bertatik azaldu da unibertsitateko ikasleak dituela xede liburu honek, horiek gradu ikasketakoak zein masterreko eskolakoak izan, bi arloetakoak baitaude euskarazko materialen beharretan. Horrek ez du ostentzen, haatik, edu desberdineko hartzaileak ere izan ditzakeela, Orobat, esparru teoriko zein praktikoetan dabilen legelaria kontuan hartu da. Horrexegatik, hain justu, nabariko pisua daukate indarreko zuzenbidearen aipuek, egun erdietsigarria baita Kode Zibila eta legeria zibilaren euskarazko testua.

Eskerrak, Zuzenbidearen Euskal Akademiari, ahalegin honetarako eskaini diguten laguntzagatik.

Hona, bada, urte askoren lana eta emaitza, honen bidez eskaintzen dena. Era-biltzaileari bidelagun izango zaiolakoan, esan daiteke, behinolako olerkariak esan zuen bezalaxe: *Geroak erranen!*

**Andrés M. Urrutia Badiola**

Notarioa

**Elixabete Piñol Olaeta**

Deustuko Unibertsitatearen

Zuzenbide Fakultateko irakaslea.

Abokatua

